

## GOTZON GARATE EUSKALARI ETA IDAZLE

### Sarrera

*Euskararen Nazioarteko Eguna* ospatzen dugu gaur. Saindu euskaldun batek, San Frantzisko Xabierrekoak, ardatzen du euskararen nazioarteko egun hau. Ezin erarago dator egun berriazko honetan, beraz, bidez eta legez, Gotzon Garate josulagunari eskaini nahi diogun gorazarrea. Gotzon Garateren gainean gogoeta eta iritzi batzuk, labur bada ere, eskainiko ditut. Gotzon Garateren lanak, denok dakigunez, askotarikoak badi-ra ere, gure omenaldi xume honetan euskal idazle eta ikertzai-le alderdiak ukituko ditugu.

### Gotzon Garate irakasle eta euskalari

Alor bat baino gehiago jorratu zituen Gotzon Garatek. Has-teko eta behin, ekin diezaiogun literatura azterketaren baratze-ari. Euskara kontuetan diletantismoan bizi izan gara luzaroe-tan. Garai zabal batean, euskaltzalea zenak euskararan alor guztiak ezagutzen bide zituen, sakon eta sarkor gainera ere. Gotzon Garatek euskararen ikerketa-esparrua unibertsitatera ekarri eta Euskal Filologia abiarazi zuen, 1978 urtean. Asmo eder horretan bi josulagun izan zituen hasiera hartan laguntzai-le: Patxi Altuna eta Dionisio Aranzadi.

Hasierako garai hartan, orain hogeita hamar urte, Euskal Filologia sortu berri hartan, berak irakasgai izan zuena euskal elaberrigintza izan zen. Berak prestatu behar izan zituen eskola irakaspenetik bi liburu sortuko ziren *Euskal elaberrien kondaira I eta II*<sup>1</sup>. Euskara onaren eta garbiaren zalea eta are maitalea zenez gero, bestalde, min handia ematen zion euskara maluskatuak, gexatuak. Bestela esan: erdaraz pentsatutako sasieuskara mingarri zitzaion. Euskaganako maiteminak eraginda idatzi zuen *Erdarakadak: euskaraz ongi mintzatzeke hiztegia* liburua. Liburu hau, alde batera, detektibeskoa da. Euskararen gorputz ederra zauritzen bide duten erdal esapideak banan-banan apuntatu ohi zituen, urte luzeetan barrena, gerorantz euskal ordain on eta lege zaharrekoak eskaintzeko. Ehundaka eta ehundaka ohar sistematizatuz eta euskarak dituen berezko sendabideak emanez egin zuen liburua.

Paremiologian edo atsotitzen baratzean burutua ere lan handia da. Urte luzeetako bilketa eta sistematizazio lanak neke ugari eragin zizkion. Lan guztia informatizatzeak ere zenbat arazo eta buruko min etsigarri ekarri zizkion! Hiru liburu aipatuko nituzke sail honetan: *Euskal atsotitzak-Basque proverbs*, 1999koa, eta ondoren etorriko ziren *27. 173 Atsotitzak, refranes, proverbes, proverbiala*, 2002koa, eta liburu bera handiturik edo emendaturik *30. 466 Atsotitzak, refranes, proverbes, proverbiala*, 2004koa. Hiru liburu hauek paremiologiaz ari dira, goraxeago esan dugunez. Euskal esaera zaharren almatzen edo biltegi handi bat osatzen dute. Euskal esaera zaharrak ingeles, gaztelania eta latinaren ordainekin ematen dira. Liburu hau paremiologia alorrean inoiz burutu den lanik handienetakoa da. Liburua CD eta guzti argitaratu zen eta denbora gutxira Internet-en eskeki zen. Gure erretrauen altxorra mundu osora zabaltzeko bidea egin zen modu horretara. Paremiak edo esaera

---

<sup>1</sup> GARATE, Gotzon: *Euskal elaberrien kondaira I eta II*, Gero Eukal liburuak, Ediciones Mensajero, 1983 eta 1985. Bi liburu hauek geroagoko edizio batean liburu bakar batean argitaratu ziren.

zaharrak baino ugariagoak dira modismo edo erramoldeak. Lan handia egiten ari zen erramoldeen gainean ere eta uste dut luze gabe argitaratuko dela lan hau.

Badira, han-hor-hemen, hainbat artikulua euskal aldizkarietan sakabanatuak eta hegabanatuak, *Enseiukarrean*, *Jakin*, *Euskera*, *Karmel*<sup>2</sup> eta abarretan. Gotzon Garateren bibliografia zehatzik, nik dakidala, ez da oraindik egin. Julia Sevillak zuzentzen duen *Paremia* aldizkarian, hamalaugarren zenbakian, bere liburu guztien zerrenda zehatza dator, baina liburuez gai-



*Zuberoan, 2001ean.*

---

<sup>2</sup> *Karmel* izan da azken urteotan Gotzon Garateren artikulua gehien bildu dituen agerkaria. 2008-3 alean, 65 or., Julen Urkizak egindako bibliografia zerrendan hogeitun artikulua zenbatzen ditut.

nerako artikuluen zerrenda ere, inongo dudarik gabe, eratu beharko litzateke<sup>3</sup>.

### Gotzon Garate euskal idazle:

Euskaraz, aspaldian hasi zen idazten. Juan San Martinek argitaratu eman zuen *Escritores euskericos*<sup>4</sup> lanean, 1968koan, 1955. urtean hasi zela idazten diosku<sup>5</sup>. Idazten, edo zehatzago, argitaratzen esango genuke. Garai hartan hogeita bat urte edo izango zituen Gotzon Garatek. Oso gazterik, hasi zen, beraz, argitaratzen. Orduko aldizkari zenbait hauexek dira: *Egan*, *Zeruko Argia*, *Euzko Gogoia*, *Jesus'en Biotzaren Deia*... Lehen hasiera hartan *Go Miga* izengoitiarekin idatzi ohi zuen. Idatzi zituen gai gehienak ez ziren ipuin edo eleberriak, itzulpen eta saio eta gizarte-gaiak baizik. Zer da *Go Miga*<sup>6</sup> izengoitia? Zer adierazten du *Gomiga* delakoak? Gotzon Garate bezala ezagutu dugun gehienok badakigu gerorantz euskaratutako izena dela. *Angel Maria* izena euskaraz *Gotzon Mirena* bihurtu zuen. Gotzon Mirena Garate izen-deitura osoaren lehen silabaz, *Gomiga* osatzen da. Antzeko zerbait egin zuen, anagrama bat egi-

<sup>3</sup> *Paremia* aldizkarian berean artikuluez gain badatoz Gotzonek egindako erreseinak ere. Aldizkarietako bibliografia ez da oso zaila egiten. Hor artikuluen artean badira lehen aro edo gizarte-gaietakoak, gaztelaniaz oin-ohar askorekin idatziak, *Estudios de Deusto* aldizkarian. Ez dakit Deustuko geroagoko aldizkarian, *Letras de Deusto* delakoan, Gotzonen lanik dagoenik. *Enseiunkarreen*, ostera, hiru-lau behintzat badaude. Egunkarietako aleak, garaian garaiko interesa batez ere dutela, zailagoak izango dira batzen.

<sup>4</sup> SAN MARTIN, Juan: *Escritores euskericos (Catalogo Bio-bibliográfico de escritores contemporáneos en Vascuence)*, Editorial de la Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao 1968.

<sup>5</sup> Honelaxe dio Garate Goyarzun, Angel María. Nació en Elgóibar (Guipúzcoa) el 1 de septiembre de 1934. Ha usado el seudónimo "Gomiga". Es Padre Jesuita. Hizo sus estudios en Loyola y Barcelona.

Comenzó a escribir en vascuence en Loyola, 1955. Ha colaborado en "Jesus'en Biotzaren Deia", "Euzko gogoia", "Egan" y "Zeruko Argia".

<sup>6</sup> Halaxe ikusi dut irakurrita beraren hitzaurre batean. Izen deitura osoen ondoren izengoitia. Baina baliteke artikuluetan, Juan San Martinek dioen bezala, dena batera Gomiga idaztea.

nez, Luis Jauregi poetak ere *Jautarkol* eratu zuenean, *Jauregi tar Koldobika* laburturik. Gogoan dut orain dela bost bat urte ere garai hartan ezagutu zuten askok, txeraz eta maitasunez, oraindik ere Gomiga deitzen ziotela. Lehen hasiera hartan izen osoago batez ere baliatzen zen, *Garate tar Gotzon Mirrena* bezala. Garai hartakoa da, 1974koa, esaterako, Jakin editorialak kaleratu zuen *Sei idazle plazara 2* liburua<sup>7</sup>. Liburu hartan gizarte jakintza eta politikaz aritzen ziren idazleak dira aztergai: Larresoro, Azurmendi eta abarren artean gure Gotzon M. Garate Goiartzun-en Marxismoaren gaineko lanak ere aztertzen dira.

Ezagutzen dugun lehen aro honetan saioak eta gizarte-jakintzako gaiak landu zituen euskaraz<sup>8</sup>. Tankera honetako gaiak lantzea ez zen ohikoa garai hartan, gaur egun ere ez dira, noski, denok dakizuen bezala, baina garai hartan askozaz bitxi



*Gerezieta-Heletan, 2003an.*

<sup>7</sup> IZTUETA, Paulo, APALATEGI, Jokin "Begiarmen": *Sei idazle plazara 2. Azurmendi, Garate, Ansola*, Jakin n° 16, Arantzazu Oñati 1974.

<sup>8</sup> *Marxen marxismoa* liburua Deustun *Carrera de ciencias sociales* egiten zuten hirugarren urteko ikasleentzat eratutako ikaskaiez hornitua dago, Gotzonenek berak hitzaurrean esaten duenez.

eta arraragoak ziren<sup>9</sup>. Gotzon Garateren literaturarako jauzia, edergintza edo literaturara etortzea alegia, 1977 eta 1978ko urtetan gertatu zen, oker ez banago. Berak askotan esan ohi zuen bi eleberri zituela euskaraz idatziak mahaiko tiradera batean, eta bi eleberriok aurkeztu zituela bi sariketara. Eta baita sarituak atera ere! Bata Euskaltzaindiak eratzen duen Domingo Agirre Nobela Sarira eta bigarrena Irungo Hiria sarira. 1977ko Euskaltzaindiko Domingo Agirre nobela saria irabazi zuen *Elizondoko eskutitzak* lanarekin eta 1978ko Irun Hiria *Esku leuna* eleberriarekin. Literatura sariketek beren alderdi ona ere bazutela esan ohi zuen: lanak argitaratzeko zein idazlea adore berriz janzteko. Saririk irabazi ez balu, nekezago ekingo zion sormen lanean, edo hobeto esateko, nekezago jarraituko zuen sorkari berriak asmatzen. Garaitsu horretatik, beraz, ia berrogei urtean etengabe idatzi ditu ipuin, erreportaietan eta eleberriak. Berrogei urtean idatzitako euskal liburu guztiak ez ditut hemen aipatu, baina gogoeta bat azaltzekotan hauxe esango nuke. *Nafarroako Ezkurran* eta *Aldarte oneko ipuinak* bezalako liburuak Euskal Herrian gertaturiko ixtorioez osatuak daude. *New Yorkeko kronika beltza eta beste kontu periferiko batzuk* liburuko ale asko munduko beste antipodetan gertatuak dira: liburu azalean datorren New York hiri erraldoian. Gotzon Garatek berak idatzitako literatura liburu guztien artean batez ere bi zituen begiko. Bi liburu ederragotzat jotzen zituen *Lehortean* ipuin-liburua eta *India barrigarria* erreportaietan-lana.

Nire oroitzapenek engainatzen ez banaute, Gotzon Garateren Jon Bidart detektibeak Euskal Herriko lekurik sakon edo euskaratsuenetan ematen ditu lehen pausoak: Elizondon eta Goizuetan. Bestela esan, Gotzon Garateren eleberrietan detek-

---

<sup>9</sup> Nola itzuli *dualidad*, *ombliguisimo* bezalako hitzak? Lehena *bigatasun* egi-ten du, bigarrena *zilborkeria*. Erdal hitzak itzuli eta moldatu beharra zegoen. Eta hitzak ez ezik, zailagoa den kontzeptuen argitasuna ere eman beharra zen euskaraz.

tibeak London edo New Yorken ibiltzeko ordez Elizondon eta Goizuetan ari dira kuxkuxeatzen eta geroagoko nobeletan Bilbo eta Donostia bezalako hirietan.

Esan dezadan, beste alde batetik, kontu jakingarri bat. Bi mundu arras bestelakoak uztartzen zituen Gotzon Garatek bere bizitzan. Gaua eta eguna bezalakoak, guztiz kontrakoak eta are antitetikoak dira euskal mundu baketsu, baserritarra eta New York hiri zaratsatu, urbanoa. Udazken, udaberri eta neguan Euskal Herririk euskalduneneko aitona-amonekin egon ohi zen mendi-baserrri galduetan, erbera edo herri kaskotik urruti dauden baserrri mortuetan. Izadiaren bakerik ederrenean mundu berriko zaratatetik urruti. Baserrietako egotaldia ordaindu egiten zuen eta sukaldean egon ohi zen aitona-amongandik ikasten eta datuak hartzen. Ipuin, esaera zahar, esa-



*Xabier-en, 2006an.*



pide, gertaera... Eguraldiak laguntzen zuenean maite zuen baserriko txakurrekin, ahal diren guztiekin, mendi ibilaldiak egitea basoetan eta mendi-hegietan barrena. Udan, ostera, New York-eko Bronx auzoan eta batez ere Manhattanen, pertsona gazte arazotsuekin egon ohi zen aholkulari eta eleberri poliziakoak ikertzen eta irakurtzen. New York-eko kaleko zaratari aurre egiteko, hiritar askok egin ohi duten bezalaxe, galtza-saketan algodoia eramateko aholkatzen du *New Yorkeko kronika beltza* liburuan. Baserrietako egonaldi gozo eta aberatsetan basoetako okil, kuku, biragarro eta txantxangorrien txinta gozopean egingo zituen bere ibiliak.

Eta euskarari gagozkiola zer esan? Eleberrien mataza edo gertaera-haria –modu nahasi itxurakoan haseran, garbi baino argiago azkenean– axola handikoa zuen. Eleberriak irakurlea harrapatu behar du zaputzetik edo lepozamarretik lehen orrialdetik eta gero azkenengo orrialdean laxatu edo askatu. Gotzonen eleberriak euskara gozo eta aberatsez idatziak daude, hitz eta adjetibazio oparoz jantziak. Esapide edo esamoldeak ere ugari daude. Sintaxi edo joskeraren aldetik esaldiak labur eta zorrotzak dira. Ez ditu esaldi subordinatu edo menpekoak aurkituko irakurleak. Alde batera Ernest Hemingwei-en idaztanke-ra zuen gogoko: estilo bizkor, zuzen eta sarkorra. Hitz batean esateko, alkimia berezi bat lortu nahi zuen: gaztetatik hasi eta bizitza osoan irakurri zituen eleberri-poliziakoen hari sotil eta zoragarriak euskaraz eman nahi zituen, baina ez nolanhika, euskara eder, gozatsu eta eredugarrian baizik. Euskara eder hori zuzen eta garbia izan behar zuen, arakaitzik gabekoa. Euskal herri euskalduneko geografia osoko baserrietan ikasiak zituen hitz eta esapideak bere literaturan txertatu nahi izan zituen, euskal irakurleen gozamenerako. Edergintza edo literatura hau joskera zalu eta bizkorrean eman nahi zuen. Eleberri poliziakoa munduko generorik irakurrienetakoa denez gero, euskaldunak euskaraz irakurtzera erakarriko zituen, eta, beharbada, kasurik onenean, euskal letretara zaletu euskara ikasten ari diren asko eta asko.



Baina denak ez dira nobela-poliziakoak. Baditu bestelako lanak ere. *Lehortean* ipuin-liburua edo *Muskilak*, esaterako, beste mundu bat agertzen digute. *India harrigarria* eta *New York, Ney York* lanetan erreportaia zuzenak eskaintzen dizkigu.

## Amaiera

Bukatzeko esan dezadan berak hain maite zituen euskal esaera zaharretako bat. *Hiru gauza galtzen omen dira munduan: basoko egur ibarra, pobrearen arrazoia eta itsasoaren gaineko euria*. Gotzon Garateren lanak ez dira galduko itsasoaren gaineko euria bezala. Ez dira galduko, ura uretan bezalaxe. Gabriel Arestik esan ohi zuen eredura, euskararen gladiadorea izan zen. euskararen gladiadorea, eta are gure Ama Euskararen aldeko langilerik suhar eta aspergaitzenetakoa. Aitortu behar dugu euskaraganako maitasuna ere bera ezagutu genu-



Gernikan, 2007an.

noi txertatu eta are indartu zigula. Euskaraganako maitasuna eta bizi izateko beharrezkoak diren errespetua eta bizi-poza ere bai. Bizinahia eta bizi-poza, are bitalismoa ere. Euskaraz nahi baduzue, *bizimina*, baina hitz honetan minaren zentzurik ederrenean *nabi handia* edo *barruko desira* adierazteko.

Euskararen Nazioarteko eguna. Deustuko Unibertsitatea 2008ko abenduaren 3a.

*Jabier Kalzakorta*